

IKERLARIEN AURREIKUSPENAK

- a. Litekeena da etorkizunean haurrak genetikoki moldatuak izatea.
- b. Baliteke bizitzeko bizi-baldintzak askoz okerragoak izatea.
- c. Baliteke espazioa konkistatzea, eta hango bizi-baldintzek gizakiongan mutazioak eragitea.
- d. Bizimodu aldaketak gizakion fisikoan eragina izan lezake.

4. zatia

Espazioaren konkistarekin aurrera egingo dugu, baina espaziora joaten direnek ez dute bizimodu erraza izango; izan ere, grabitaterik gabe bizitzera ohitu eta egokitu beharko dute, eta hainbat mutazio izan litzakete: begi gorriak, zainez betetako kopeta eta aurpegia, buru handia, ipurdi txikia eta zimurrik ez. Hezur ahulagoak izango litzakete eta anemia espaziala izeneko gaixotasuna izateko arriskua izango lukete.